# Poesia eta prosa uztartuko dituen liburua argitaratuko du Atxagak urte amaieran

Idazle asteasuarrak duela ia hogeita hamar urte sortu zuen 'Xola' txakurtxoaren abenturak liburu batean bildu ditu orain Erein Argitaletxeak

ITZIAR ALTUNA

DONOSTIA. Idazteari ez dio utzi Bernardo Atxagak eta dagoeneko bere hurrengo lana berrikusten dihardu. «Gaur goizean ere horretan aritu naiz», aitortu zuen atzo Xola txakurraren bost abenturak biltzen dituen liburuaren aurkezpen ekitaldian. 'Paradisuaren kanpoko aldea' (Exteriores del paraíso) izenburua eramango duen lan berria urte amaieran argitaratuko da Estatuko lau hizkuntza ofizialetan, euskaraz, gaztelaniaz, galizieraz eta katalanez.



Bernardo Atxaga 'Xola' bildumaren aurkezpenean, atzo. GORKA ESTRADA

Idazleak gogoratu zuenez, aspaldititik ari da poemak idazten eta azaltzen, «Euskal Herrian egin nuen azken poema irakurketa hemen bertan izan zen, Koldo Mitxelena Kulturune honetan, Eta hemen irakurri nituen poema horiek joango dira liburuan». Hala ere, lana ez zekiela nola egituratu aitortu zuen. «Ez nuen nahi poema segida bat izatea», eta azkenik erantzuna Frantziako hainbat kartzelatan irakurketak egin ondoren aurkitu zuen. «Liburua poema eta prosa arteko ezohiko nahasketa bat da, izan ere irakurketa haietan bizitako giroa eta pertsonaiak ere islatu ditut».

Martuteneko kartzelera egindako bisita bat ere jasoko du lan berriak, baina atal hau «komikoa» dela aurreratu zuen Atxagak. «Euskal literatura zaharrari buruzko hitzaldi bat ematera joan nintzen. Sartu orduko zuzendariak esan zidan 'ez dakit kasu handirik egingo dizuten, zeren eta aspaldiko partez emakumezko eta gizonezkoak batu ditugu', eta halaxe gertatu zen eta halaxe kontatzen dut».

**HOLAXE BIZI DA XOLA**
BERNARDO ATXAGA

Estiloa: Ipuinak.
Argitaletxea: Erein.
Orrialdeak: 232.
Prezioa: 22 euro.




## 'Xola' txakurraren bilduma

Liburu berria dendetara noiz iritsiko zain, Atxagaren 'Xola' txakurtxoaren bost abenturak liburu bakar batean bildu ditu Erein argitaletxeak. Arratoi-txakur honen istorioak 1995etik aurrera argitaratu ziren: 'Xolak badu lehoien berri', 'Xola eta basurdeak' (1996), 'Xola eta Angelito' (2004), 'Xola eta Ameriketako izeba' (2011) eta 'Xola eta lapurra' (2005). Ale asko agortuta zeuden eta bilduma honek haur literaturan «oinarri» izan den lana berreskuratzeko aukera eskainiko du, Uxue Razquin Erein argitaletxeko editorearen esanetan.

Bildutako bost abenturak berdin mantendu dira, nahiz eta azken biak «zerbait aldatu» eta «moztu» diren, idazleak aitortu zuen bezala. «Burua askotan luze joaten da eta eskua haren atzetik, baina batzuetan komeni da esku horri gelditzeko esatea», azaldu zuen Atxagak.

Txakurra aukeratu zuen ipuin hauen pertsonaia nagusitzat eta ez katua, azken hauek «munduaren literaturan presenteago egon arren». Autorearen kasuan, txakurrez inguratuta bizi izan dela onartu zuen eta hauen psikologia hobeto ezagutzen duela, horregatik «ezinbestekoa» egin zitzaion 'Xola' bezalako animalia bat asmatzea. Hau ume errebelde baten parekoa da, ezjakintasun poetiko eta haurren inozentzia duena. «Zerbaiti hizkuntza ematen badiozu, hizketan jartzen baduzu, hori delako hori gu bezalakoa da», gaineratu zuen.

'Xola' txakurtxoaren bost liburu argitaratu ditu Atxagak eta atzo aitortu zuenez, beste bi gehiago ere idatzi zituen bere garaian. Baina «irakurri zituzten pertsonek hori ez zela 'Xola' esan zidaten. Batzuetan egokiak ez diren hitzak aukeratzen dira eta ipuina aldatzen dute. Horretarako pertsonaia oso ondo jarraitu behar da, eta hori ez da erraza».

Mikel Valverdek 'Xola'-ren abenturak animatzen ditu komikiaren pareko ilustrazioekin, baita liburu berrian ere. Pertsonaia irudikatzea kostatu zitzaiola kontatu zuen, baina «umorea eta erritmoa dituzte liburuek eta hori errazagoa da ilustratzeko».

Liburu bakar batean bildutako narrazio hauek Shogakukan argitaletxe japoniar ospetsuak hautatu ditu 2022an, eta literatura unibertsaleko haurrentzako lan onenen artean sartu du. Txinerara ere itzuli berri da. Atxagaren esanetan, egun zailagoa da haur literatura atzerrian egitea, izan ere berak egiten duena «egungo korronte nagusien aurkakoa» da, «nire liburuetan fikzioa eta pertsonaiak dira nagusi».

# Hilario Bravo recorre 50 años de trayectoria en la muestra 'Diario de un chamán'

R. K.

SAN SEBASTIÁN. El artista Hilario Bravo (Cáceres, 1955) expone en la casa de cultura de Okendo la muestra 'Diario de un chamán' en la que recorre sus 50 años de trayectoria artística a través de pinturas, dibujos, esculturas, cerámicas, libros de artista y fotografías. Bravo celebra precisamente durante este año el 50 aniversario de su primera exposición individual en la Asociación Artística de Guipúzcoa (1973), entonces ubicada en la plaza de La Trinidad. Así inició su formación de carácter autodidacta dentro de los círculos artísticos donostiarras ligados al arte conceptual y de acción (1972-1987).

'Diario de un chamán' reúne «todo el hacer del artista para mostrar esa su forma chamánica de practicar el arte, entre sanadora y reflexiva, en una exposición que incide, a lo largo de estos cinco lustros, en la evolución de formas y conceptos desarrollados por Hilario Bravo». Una evolución que transita entre la simbología ancestral y la mitología, la militancia poética y la belleza de la melancolía, entre la meditación y la emoción. «Conceptos todos ellos que toman cuerpo en pinturas, dibujos, esculturas, fotografías, fotomontajes, libros de artista, documentación, etc. que conforman una muestra contrastada, dinámica y razonada», según el autor.

## «El tiempo confeso»

Un conjunto de obras expuestas en el que cada una «pertenece a un tiempo, contiene su historia y habla de conceptos humanos». Obras que aparecen reseñadas en el catálogo publicado con motivo de l muestra, con textos de los críticos de arte Maider Beunza y Javier San Martín.

De modo paralelo a la exposición, que permanecerá abierta hasta el 24 de junio, se ha programado un coloquio el viernes con Hilario Bravo sobre 'Itinerarios del arte: el tiempo confeso', mientras que el día 24 se realizará una visita guiada con el artista a la exposición.

Ha participado en exposiciones por toda España y también en Europa, Estados Unidos, Israel o México. Sus obras pueden admirarse en colecciones como las del Banco de España, la Biblioteca Nacional, el Ministerio de Cultura, el Ministerio de Asuntos Exteriores o la Fundación Colegio del Rey.

# La industria del videojuego creció un 12 % en España y facturó más de 2.000 millones de euros

La patronal atribuye el éxito «a la creatividad, que está en España muy por encima de la media de otros países»

R. C.

MADRID. La industria del videojuego en España facturó 2.012 millones de euros en 2022, lo que supone un crecimiento del 12,09% en relación con 2021. Así lo refleja el anuario de la Asociación Española de Videojuegos (AEVI), que se felicitó por la vigorosa recuperación del mercado que alcanza una cifra récord.

En el ejercicio anterior la facturación fue de 1.795 millones de euros, un 2,75% más en relación con 2020 cuando, en plena pandemia, se produjo un espectacular crecimiento del sector del 20% con respecto a 2019.

«Ha sido un récord», se felicitó José María Moreno, director general de AEVI. «Seguimos siendo el cuarto mercado en la Unión Europea, por detrás de Alemania, Francia e Italia, que también han crecido, aunque menos que España», dijo. «Ahora se percibe un mayor interés por los videojuegos porque la gente joven le está dando a esta industria una nueva visión más positiva», agregó.

## Pujanza y consumo

Alberto González, presidente de AEVI, achaca el éxito del sector «a que la creatividad está en España muy por encima de la media de otros países» y a que «sus profesionales aportan soluciones que no son fáciles de encontrar en otros sitios».

AEVI contabilizó el año pasado 18,2 millones de jugadores, el 53% hombres (9,6 millones) y el 47% mujeres (8,5 millones). Por edad, la franja más activa es la de 11 a 14 años, con un 84% de jugadores. Los jugadores españoles dedican una media de 7,42 horas a la semana a los videojuegos, un 8,4% menos respecto al año pasado, cuando la media era de 8,1 horas. Nos superan Alemania, con una media de 10,2 horas a la semana, Reino Unido (9,6 horas), Francia (7,9 horas) e Italia (7,5 horas).

El juego de fútbol 'Fifa 23' fue el más vendido el año pasado, seguido de 'Leyendas Pokémon: Arceus', 'Nintendo Switch Sports', 'Pokémon Púrpura' y el juego de acción 'God of War Ragnarök'. Por géneros, triunfan los juegos de acción, seguidos por los de rol, los de aventura y los de carreras.